




ONTZIAK

+285kg

BIRZIKLATZEA

2017an, Fakultateko plastikozko edukiontzietan, 1.008 kg jaso dira, pasa den urtean baino 285 gehiago. Hortaz, birziklatze tasa igotzea lortu dugu.

ETA... ZER EGIN DEZAKET NIK? Pilen kontsumoa



01.

Gorde erabilitako pilak

Gorde gastatutako pilak ontzi batean. Horiek galtzea edo sakabanatzea saihestuko duzu. Ez dira ohiko zaborretara bota behar.

02.

Ez bota zaborretara, erabili edukiontzi espezifikoak

Pilak berariaz horretarako jarritako edukiontzietara bota behar dira. Hala, pilak behar duten tratamendua jasotzen dutela bermatuko dugu. Hirietan edukiontzi horiek erraz aurkitzen dira; kanpoaldean, aldiz, "garbiguneetan" egoten dira. Fakultateak ere baditu horretarako guneak.

03.

Erabili kargatzeko pilak!

Kargatzeko pilak erabiliz, kontsumitzen diren pilen kopurua murriztu egiten da. Mota honetako pilak, batez beste, 500 aldiz kargatzen dira. Beraz, kargatzeko pila bat ohiko 500 pilaren baliokidea izan daiteke. Dena den, beren balio bizitza amaitzen denean, pilen edukiontzira bota behar dira horiek ere.



PAPERA

-19.500orri

KONTSUMOEA

2017 urtean aurrekoan baino paper gutxiago erostea lortu dugu, hain zuzen ere, 2016an baino 19.500 orri gutxiago erosi ditugu. Bide onean gaude!

+1.175kg

BIRZIKLATZEA

Edukiontzi urdinei dagokionez, guztira 8.915 kg paper jaso dira, 2016an baino 1.175 kg gehiago.

EMAITZAK

Paper gutxiago kontsumitzeaz gain, gehiago bota dugu birziklatzera. Eskerrik asko guztioi zuon esfortzuagatik, emaitza onak lortu ditugu 2017an.

GUTXITU PLASTIKOZKO HONDAKINEN SORRERA ETA AURREZTU DIRUA. ERABILI ZURE EDALONTZIA!

Fakultate barruko kafe makinek kafea edalontzirik gabe kontsumitzeko aukera ematen dute 5 zentimo gutxiago ordainduta; hortaz, 0,30 eurotako kafe bat 0,25ean har dezakezu.

Nola erabili "edalontzirik gabeko aukeraketa" kafe makinetan:

1. Jarri katilua
2. Sartu txanponak
3. Markatu "edalontzirik gabe"
4. Egiatzatu pantailan "edalontzirik gabe" jartzen duela
5. Aukeratu edaria



	2015	2016	2017
Guztira	46.944	49.173	47.245
Edalontzirik gabe	3.202	9.293	7.959
Edalontzirik gabeen %	6,82 %	18,90 %	16,85 %

Datu horien arabera, edalontzirik gabeko aukeraketa nabaria izan da azkenengo urteetan. 2017an zertxobait egin zuen behera aukera honek baina azpimarratzeko da oraindik ere.


Gogora ezazu, gure edalontzia erabiltzean, plastikozko hondakinen kopurua nabarmen gutxitzen dugula.

PAPERIK GABEKO EGUNA

Iazko abenduaren 15ean, Paperik Gabeko Egunaren bosgarren edizioa ospatu genuen Fakultatean. Aurreko ostiralekin alderatuz, guztion laguntzarekin, **%66,17 fotokopia gutxiago** egitea lortu genuen 2017ko Paperik Gabeko Egunean. Kontaketa Atezaintzetako, Dekanotzako eta Idazkaritzako fotokopiagailu nagusietan egiten da.

Gainera, Jonathan Garcíaen instrumentuak ikusgai eta entzungai izan genituen Fakultateko sarreran. Jonathanek, **Tunipanea** proiektuan, eguneroko materialak berrerabiliz musika-tresna bitxiak sortu ditu, eta horietako batzuk izan genituen Fakultatean. Aipatzekoak izan ziren tresna horiekin egin zizkigun bi erakustaldiak.

Informazio gehiago: [Campusa](#).



BA AL ZENEKIEN...?

Munduko biztanleriaren %92a Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) ezarritako airearen kalitate mugetatik kanpo bizi da.

BBCko [artikulu](#) batean OMEk argitaratutako txostena eta airearen munduko kutsadura mapa aztertzen dira. Airearen kalitate eskasena Asia Ekialdean eta Mediterraneoaren hegoekialdean aurkitzen dira. Horien atzetik Afrikako herrialdeak daude. Europak ere ez ditu emaitza onak; Ingurumen Osasunaren Saileko koordinatzailearen hitzetan, Carlos Dora doktorea, "...*(Europak) oraindik ibilgailu diesel asko dauzka, eta horrek gai partikulatu asko sorrarazten ditu*".

AGORTZEN ZAIZUN IDAZTEKO MATERIALA BIRZIKLATZEN DUZU?

Zure boligrafo, errotulagailu, fluoreszente, etab. agortzean, ez bota zaborretara. Fakultatean 2 leku dauzkagu beraiek birziklatu ahal izateko: bata fakultateko sarrerako Hallean eta bestea idazkaritzan.

Beraiek birziklatuz, gure ingurumen inpaktua gutxitzea lortuko dugu.

Onartutako produktuak:

Boligrafoak, errotuladoreak, luma estilografikoak, kartutxoak, fluorescentak, portaminak, markatzaileak, zuzentzaileak (zintadunak, likidoak eta boligrafo erakoak).

Onartzen EZ diren produktuak:

Kolak, gomak, erregelak, arkatzak, mozteko tresnak.

